

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU
ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko abenduaren 3ko bilera arruntean (4/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

2. Gaia.-Erabakia batzordekideetako bati dagokionez Gufeko kontratazio-mahaiaren osaera aldatzeko; bere Erregelamenduko 12. artikulua.

"Lehenengoa.- Kontratazio Mahaiaren osaerari buruzko GUFEn Kontratazio Erregelamenduaren 12. artikulua aldaketa partziala xedatzea, mahaikideetako bati dagokionez. Aldaleta honako hau da:

"12. artikulua.- Erakundearen Kontratazio Mahaia honela osatuta egongo da: (...)

- *Aholkularitza juridikoko funtzioa duen mahaikide titularra: Kontratazio eta Ondare Arloko Burutza lanpostuaren titularra.*

Ordezkoa: Kontratazio eta Ondare Arloari atxikita dagoen Zuzenbideko lizentziatu lanpostuaren titularra".

Manuaren gainerako edukia ez da aldatuko.

Bigarrena.- Erabaki hau taula fisikoan, birtualean eta GUFEn webgunean argitaratzea, eta xedapen-zatiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean."

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-12-10
GUFEN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

